


Plastiko biodegradagarriak ez dira hain biodegradagarriak

Gehien erabiltzen den bioplastikoa itsasoan nola degradatzen den aztertu dute, eta ikusi dute urtebete baino gehiago irauten duela batere degradatu gabe.

Plastikoak ingurumenean sortzen dituen arazoan irtenbide gisa erabiltzen dira bioplastikoak. Erabiliena PLA da. Besteak beste artotik, maniokatik eta erremolatxatik abiatuta ekoizten da, eta biodegradagarri eta konpostagarri gisa etiketatzen da. Baina gauza bat da kondizio industrial jakin batzuetan degradagarria izatea, eta, bestea, ingurumenean izatea.

Hamar ehun-mota jarri zituzten itsasoan. Zelulosaz eta kotoiz egindakoak hilabetean degradatzen direla ikusi zuten; PLAn eta petroliotik eratorritakoetan, berriz, ez zuten degradazio-zantzurik topatu esperimenduak iraun zuen 424 egunetan.




ARG.: Scripps Institution Of Oceanography

Emaitzak ikusita, ikertzaileek aldarrikatu dute material bat biodegradagarri edo konpostagarri gisa sailkatzeko beharrezkoa dela materialak ingurumenean nola degradatzen diren jakiteko azterketak estandarizatzea. Izan ere, kondizio jakin batzuetan degradagarriak izanagatik, ingurumena poluitzen dute horiek ere. ●

Itsasoaren kolorea aldatzen ari da, klima-aldaketaren eraginez

Itsasoaren kolorea aldatu egin da azken 20 urteetan. Klima-aldaketaren eraginez itsas azaleko ekosistemetan gertatzen ari diren aldaketen ondorioa da, *Nature* aldizkarian argitaratu duten lan baten arabera.



ARG.: StockSnap/Pixabay

Hainbat hamarkada daramatzate sateliteek itsasoaren kolorea neurtzen. Batez ere, klorofilaren jarraipena egin da orain arte, baina uste da 30 urte baino gehiago behar direla klorofilaren bidez klimak eragindako aldaketak hautemateko. Ikerketa honetan, ordea, proposatu dute aldaketak azkarrago hauteman daitezkeela erreflektantzia neurtuta. Itsasoaren kolorea neurtzeko modu horrek aukera ematen du klorofilaren kontzentrazioa eta ekosistemen egoera ondorioztatzeko. Hogei urtetako datuak aztertu dituzte eta ikusi dute denbora-tarte horretan kolorea aldatu egin dela; oro har, berdera egin du.

Ikertzaileek ondorioztatu dute kolore-aldaketa hori komunitate planktonikoetako aldaketen isla dela, eta klima-aldaketaren eraginez ari dela gertatzen. ●



[Albiste gehiago, webgunean](#)